SAN TELMO MUSEOKO BERDEGUNEETAKO LOREZAINTZA ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. BETETZE LEKUA
3. LANAK NOLA EGIN
4. TRESNAK
5. EGIN BEHARREKO LANAK
6. TXOSTENAK
7. LANEN IKUSKAPENA

I. Eranskina. Planoak (zip)

II. Eranskina. Gune konkretu bakoitzeko segurtasun arauak

IFK-CIF A20965422

SAN TELMO MUSEOKO BERDEGUNEETAKO LOREZAINTZA ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

San Telmo Museoko berdeguneetako lorezaintza zerbitzua du xede kontratuak, baldintza-agiri honetan, administrazio-klausula partikularren agirian eta horien karatulan adierazitakoaren arabera.

2. BETETZE LEKUA

Kontratuari dagozkion lanak "in situ" egin beharko dira San Telmo Museoaren instalazioetan (Zuloaga plaza, 1/20003 Donostia).

Espazio horiek ezagutu ahal izateko, deialdia egingo zaie interesdun guztiei instalazioak bisitatu eta kontratuaren barruan egin beharreko lanei buruzko galderak egin ditzaten, administrazio-klausula partikularren agiriko karatularen 11.1 klausulan zehaztutako egun eta orduan.

3. LANAK NOLA EGIN

IFK-CIF A20965422

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du San Telmo Museoko berdeguneak txukun-txukun mantentzeko eta zaintzeko.

Emaitza hori lortzeko, baldintza-agiri honetako 5. klausulan adierazitako maiztasunarekin egin beharko dira lanak, gutxienez.

Lanak museoa itxita dagoenean egin behar dira, hau da, astelehenetan (zubia ez denean) edo museoko irekiera ordutegitik (asteartetik igandera 10:00etatik – 19:00etara) kanpo.

Horrez gain, lan guztiak gune konkretu bakoitzeko segurtasun arauak errespetatuz burutu beharko dira, dokumentu honen II. Eranskinean ezarritakoaren arabera.

4. TRESNAK

Enpresa adjudikaziodunak jarri beharko ditu lorezaintza lanak egiteko beharrezkoak diren materialak, produktuak (haziak, landareak, etab. barne) eta makinak, nahiz eta horiek guztiak kontuan izan diren kontratuaren prezioan.

Erabiliko diren makinek kontserbazio eta erabilera egoera onean egon beharko dute, une oro. Eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, baztertu egin ahal izango ditu SAN TELMO MUSEOA, SAko kontratu-arduradunak, eta, hori gertatuz gero, berehala ordezkatu beharko dira.

5. EGIN BEHARREKO LANAK

Bost eremu hauetan egin beharko dira lanak:

1. KLAUSTROA	
Eremu horretan, klaustroaren barrualdeko lorategiko soropila mantentzea izango da kontratuaren xedea. Soropila lau zatitan banatua dago, eta 412 m^2 inguru ditu. (I. Eranskinean jasotako planoak ikusi)	
Belarra moztea	Belar-geruza trinko eta dotore bat lortzea da mozketaren helburua, denborarekin hasieran landatutako espezieak ordezkatuko ez dituen belar txarrik edo espezierik gabea. Mozketaren altuerak ez du izan behar, inolaz ere, 4 cm-tik gorakoa. Moztutako belarra berehala jaso beharko da, ondoren birziklatu edo konpostatzeko. Hilean, gutxienez, mozketa kopuru hau egin beharko dela kalkulatzen da, urtaroaren arabera: Udaberria: hilean 2 aldiz. Uda: hilean 2 aldiz. Udazkena: hilean 2 aldiz. Neguan: hilean behin.
Ongarritzea	Klaustroko soropilean dauden espezieen garapen begetatiboa eta egoera fisiologikoa ona izateko beharrezkoak diren produktuak soropilean botatzean datza ongarritzea. Urtean, gutxienez, soropila 3 aldiz ongarritu beharko dela kalkulatzen da.
Tratamendu fitosanitarioa	Ager daitezkeen izurrite eta gaixotasunen aurkako ekintzak egitean datza. Bitarteko eta prozedura eraginkorrak eta ez-toxikoak erabili beharko dira, eta, aurrez, SAN TELMO MUSEOA, SAko kontratu arduradunarekin adostu beharko dira tratamenduok zer ordutan egingo diren, bisitariei kalterik ez egiteko. Gutxienez urtean behin, tratamendu fitosanitario prebentibo bat egin beharko dela kalkulatzen da, eta soropilak gaixotasunen bat duen aldi bakoitzean.
Goroldio kontrako tratamendua	Gutxienez, urtean goroldio kontrako 3 tratamendu prebentibo egin behar direla kalkulatzen da.

IFK-CIF A20965422

Belar txarrak selektiboki kentzea	Urtean, gutxienez, belar txarrak selektiboki 2 aldiz kendu behar direla kalkulatzen da.
Berrereintza	Elkortuta dauden eremuetan, gutxienez, bi berrereintza egin beharko dira urtean. Horretarako, azaletik eskarifikatu beharko da soropila, lurra prestatzeko eta haziak ernamuintzeko. Ondoren, haziak bota beharko dira, eta ereindako lurra ongarriarekin estali. Urtean, gutxienez, 2 berrereintza egin beharko direla kalkulatzen da.
Ereitea	Ezohiko arrazoiak direla medio (festak, erakusketak, ekitaldiak…) klaustroko belardia kendu egin badute, osorik erein beharko da. Horretarako, sustraiak kendu behar dira motoaitzurrarekin, hazia erein, ongarritu eta alperra pasa. Ereitea urtean behin egingo da gutxienez, edo museoak eskatzen duen bakoitzean.
Eskarifikatzea	Lurraren azaleko aireztapena lortzeko egiten da eskarifikazioa. Lan hori mekanikoki edo eskuz egin daiteke, hortz bertikalak erabiliz. 1 eta 3 cm arteko ildaskak egiten dira, ereiteko geruza egokia lortzeko, eta, horrez gainera, goroldioa eta likak kentzeko. Urtean eskarifikazio bat egin behar dela kalkulatzen da, berrereintza egin aurretik.
Ureztatzea	Ureztatzeko sistema unean uneko beharren arabera kontrolatu eta programatu behar da.
Ureztatze sistemaren mantentze lanak	SAN TELMO MUSEOAK egingo du, zabarkeriagatik sortutako hausturak eta kalteak izan ezik.

2. FATXADA

Eremu horretan, eraikin berriko fatxadaren landaredia mantentzeko lanak izango ditu xede kontratuak.

Ureztaketaren kontrola	Ikuskapena eta eguneroko programazioa, landareek unean-unean dituzten beharren arabera.
Ureztapen sistema mantentzeko lanak	Instalazioa ikuskatzeko beharrezkoak diren bisitak egitea, egoera onean dagoela egiaztatzeko. Fertirrigazio sistema elikatu eta kontrolatzea, landareen beharrak, urte-sasoia eta landareen egoera begetatiboa kontuan hartuta.

IFK-CIF A20965422

Tratamendu fitosanitarioa	Maila prebentiboan, gutxienez bi aldiz egin beharko da, gaixotasun arruntenei aurre egiteko. Horrez gain, izurrite edo gaixotasunen bat agertzen bada, berehala konpondu beharko da.
Inausketa	Landareak urtean behin inausi beharko dira, gutxienez. Horrez gain, landareen zati lehor edo hondatuak kendu beharko dira, baldin eta beharrezkoa bada.
Jorraldia	Urtean bitan, fatxada jorratu beharko da, fatxadan eduki nahi ez diren beste espezie batzuek lehendik daudenei lekua ez kentzeko.
Landareberritzea	Urteko lanen artean, "a priori" beharrezkotzat jotzen da arrazoi nabariengatik eta mantentze-lanengatik lehortu diren landare guztiak berritzea. Gutxienez udaberri guztietan egin behar dira landaketak, sasoiko landarearekin[1]. (izan ere, proba asko egin ondoren, sasoiko landarea sartuz baino ez da lortu landaketa indartzea).

3. TERRAZAK

Eremu horretan, harrizko zoladurak garbitzea izango da kontratuaren xedea. Guztira, 800 m inguruko azalera garbitu beharko da, eta, aldian-aldian, jarritako landareak mantentzeko lanak egin beharko dira. (I. eranskinean jasotako planoak ikusi).

Lan hauek petrilak eta kontrahormak garbitzea ere barne izango dituzte (eskailerarik hartu gabe egin daitekeen altueraraino)

Zirrikituak xurgatzea	Kaperen terrazetako zirrikitu guztiak xurgatu behar dira, eta eskuz kendu behar da aurkitutako elementu arrotz oro. Lan hori urtean bi aldiz egin behar dela kalkulatzen da.
Gainazaleko garbiketa hidrogarbigailua-rekin	Terrazetako lauza guztiak presioko hidrogarbigailu batekin garbitu behar dira, zikinkeria, goroldioa eta likak kentzeko. Lan hori gutxienez urtean bi aldiz egin behar dela kalkulatzen da.

[1] Orientatzeko eta ez mugatzeko, hauek dira gaur egun zerbitzu honetan erabiltzen diren sasoiko landareak:

o Fatxadan: Hedera hélix, Geranio hiedra, Verbena hybrida, Bidens, Tradescanthia purpurea, Muehlenbeckia oxilaris eta Convolvulus sabatius.

o Lorategietan: Yucca, Thulbalgia violacea, Asparragus meyeri, Convolvulus sabatius, Phormium eta Sedum sp.

IFK-CIF A20965422

Tratamendu fitosanitarioa	Urtean hiru aldiz gutxienez, terrazetako belar txarrak kendu beharko dira, EPAk (Ingurumenaren Babeserako Agentzia) eta Osasunaren Mundu Erakundeak toxikotasun baxuko produktu gisa sailkatutako herbizida bat erabiliz.
Landareak kentzea	Tratamendu hori egin arren landareren bat agertuko balitz, berehala kendu beharko da.

4. ATZEALDEKO EZPONDA

Eremu horretan, Museoaren atzealdeko ezpondan dauden sastrakak kentzea izango da kontratuaren xedea. Garbiketa hori urtean gutxienez 3 aldiz egin beharko dela kalkulatzen da, sastraka- hondakin asko atera behar ez izateko. Garrantzitsua da museoko langileek eta beste enpresetako langileek erabiltzen duten estalki ondoko bidea garbi egotea lanak egin ahal izateko.

Ezpondak 2.200 m2 inguruko azalera duela kalkulatzen da (100 m luze x 22 m garai).

Ezpondako landaredia garbitzea	Sare metalikoak estalitako ezpondan dauden landare guztiak kendu beharko dira. Horretarako, berez ateratako zuhaitz, sasi eta zuhaixka guztiak moztu beharko dira. Lan zaila izanik, behar bezala segurtatuta joan beharko da, norbera babesteko ekipamenduarekin eta prebentzio baliabidea izendatu behar da. Nahitaezkoa izango da bertan lan egiten duten langileek horretarako behar duten prestakuntza izatea. Horretarako, lan horiek egin baino egutegiko 2 egun lehenago, gutxienez, kontratistak dagokion egiaztagiriak eman beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, hark oniritzia eman diezaion.
Hondakinen garbiketa	Hondakin guztiak xehatu, eta bertan utzi beharko dira. Lan horiek egitean kanaletara eroritako landareak lan-eremutik atera beharko dira.

5. ZULOAGA PLAZAKO LOREONTZIAK

Eremu horretan, Zuloaga plazan dauden kanpoaldeko hiru loreontzietako landaredia mantentzea izango da kontratuaren xedea.

Ureztaketaren kontrola	Ikuskapena eta eguneroko programazioa, landareek unean-unean dituzten beharren arabera.
Tratamendu fitosanitarioa	Maila prebentiboan, gutxienez bi aldiz egin beharko da, gaixotasun arruntenei aurre egiteko. Horrez gain, izurrite edo gaixotasunen bat agertzen bada,

IFK-CIF A20965422

	berehala konpondu beharko da.
Inausketa	Landareak urtean behin inausi beharko dira, gutxienez. Horrez gain, landareen zati lehor edo hondatuak kendu beharko dira, baldin eta beharrezkoa bada.
Jorraldia	Urtean bitan, loreontziak jorratu beharko dira, haietan eduki nahi ez diren beste espezie batzuek lehendik daudenei lekua ez kentzeko.
Landareberritzea	Urteko lanen artean, "a priori" beharrezkotzat jotzen da arrazoi nabariengatik eta mantentze-lanengatik lehortu diren landare guztiak berritzea.

6. TXOSTENAK

Hileko fakturarekin batera, emandako zerbitzuak zehazten dituen txosten bat bidali beharko du kontratistak.

SAN TELMO MUSEOA, SAk aukera izango du, kontratua betetzen den bitartean, txosten gehigarriak eskatzeko, SAN TELMO MUSEOA, SAri kosturik eragin gabe.

IFK-CIF A20965422

7. LANEN IKUSKAPENA

SAN TELMO MUSEOA, SAko kontratu arduradunak lanak ikuskatuko ditu, eta egoki iritzitako jarraibideak eman ahal izango ditu.

Enpresa adjudikaziodunak, bere aldetik, langileetako bat izendatuko du talde-buru gisa, Museoaren oniritziarekin. Pertsona horrek talde osoa koordinatu beharko du, eta hizketakide lanak egin beharko ditu SAN TELMO MUSEOA, SAko kontratu arduradunarekin, zerbitzuari segimendua egiteko orduan. Lanak egoki egiten direla ziurtatzea, sor daitekeen edozein egoeratara egokitzea eta SAN TELMO MUSEOA, SAko kontratu arduradunaren jarraibideak betetzea izango da talde-buru horren egitekoa.

Donostian, sinadura elektronikoaren datan.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2025.03.07 14:03:46 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri
Kudeatzailea

I. Eranskina. Planoak (zip artxiboa).

IFK-CIF A20965422

II.Eranskina. Gune konkretu bakoitzeko segurtasun arauak (zip artxiboa)

IFK-CIF A20965422